

## Iragarpenak Anuncios

### Obra eta Zerbitzuen Enkante eta Lehiaketak Subastas y Concursos de Obras y Servicios

#### LEHENDAKARITZA, ZUZENTZA ETA AUTONOMI GARAPENERAKO SAILA

LEHIAKETA PUBLIKOA, Euskal Autonomi Elkar-  
teko Justizi Administrazioarako bulego-gaien horni-  
keta kontratatzeko dena. 11215

LEHIAKETA PUBLIKOA Euskal Autonomi Elkar-  
teko Justizi Administrazioarako inprimakien horniketa  
kontratatzeko dena. 11216

#### OSASUN ETA KONTSUMO SAILA (Osakiderza)

LEHIAKETA PUBLIKOA, Arabako Alorrerako osa-  
sunketarako materiala (tubuak) erosteko dena. 11217

#### DEPARTAMENTO DE PRESIDENCIA, JUSTICIA Y DESARROLLO AUTONOMICO

CONCURSO PUBLICO para la contratación del su-  
ministro de material de oficina con destino a la Ad-  
ministración de Justicia de la Comunidad Autóno-  
ma de Euskadi. 11215

CONCURSO PUBLICO para la contratación del su-  
ministro de Impresos, con destino a la Administra-  
ción de Justicia de la Comunidad Autónoma de  
Euskadi. 11216

#### DEPARTAMENTO DE SANIDAD Y CONSUMO (Servicio Vasco de Salud)

CONCURSO PUBLICO para la contratación de  
Material Sanitario (Tubos) para el Sector Araba. 11217

### Beste zenbait Iragarpen Ofizial Otros Anuncios Oficiales

#### NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

EDIKTUA, 3/89 Zigorbidezko espedientearen  
behin-betiko erabakia Julio González de Uriarte  
Arrizabalaga jaunari jakinerazten diona. 11218

#### DEPARTAMENTO DE AGRICULTURA Y PESCA

EDICTO por el que se notifica a D. Julio Gonzalez  
de Uriarte Arrizabalaga la resolución definitiva del  
expediente sancionador n.º 3/89. 11218

## Euskal Autonomi Elkarteko Xedapen Orokorrak Disposiciones Generales del País Vasco

#### LEHENDAKARITZA, ZUZENTZA ETA AUTONOMI GARAPENERAKO SAILA

3604

AGINDUA, 1990.eko azaroaren 23koa, Lehendakaritza,  
Zuzentza eta Autonomi Garapenerako Sailburuare-  
na, beste Administrazio Publiko batzuetako funtzio-  
nariak, transferentzien ondorioz, Euskal Autonomi  
Elkarteko Administrazioaren Kidegoetan integratzea  
finkatzeari buruzko uztailaren 24eko 195/1990  
Dekretua garatzen duena.

Beste Administrazio Publiko batzuetako funtzio-  
nariak euskal funtzio publikoaren egitura eta antola-  
kuntzan benetan integratzeko erizpide baterakorrak  
uztailaren 24eko 195/1990 Dekretuak ezarri izanaren  
ondorioz, beharrezkoa da, egindako prebisioak betetzea  
bideratuko duen prozedura erabakitzea, langile  
horiek, Euskal Autonomi Elkarteko Administrazio  
Nagusiko funtzionari egoera lor dezaten.

Uztailaren 24eko 195/1990 Dekretuaren 1. Azken  
Xedapenean jasotako aginduaren indarrez, honako  
hau

#### DEPARTAMENTO DE PRESIDENCIA, JUSTICIA Y DESARROLLO AUTONOMICO

3604

ORDEN de 23 de noviembre de 1990, del Consejero  
de Presidencia, Justicia y Desarrollo Autónomo,  
de desarrollo del Decreto 195/1990 de 24 de Julio  
por el que se determina la integración en los  
Cuerpos de la Administración de la Comunidad  
Autónoma Vasca de los Funcionarios procedentes  
de otras Administraciones Públicas en virtud de  
transferencias.

Habiendo establecido el Decreto 195/1990 de 24  
de Julio los criterios uniformes para llevar a cabo la  
integración efectiva de todos los funcionarios proce-  
dentes de otras Administraciones Públicas en la es-  
tructura y organización de la función pública vasca,  
resulta precisa la determinación del procedimiento a  
través del cual articular el cumplimiento de sus pre-  
visiones, en orden a la adquisición por el citado per-  
sonal de la condición de funcionarios propios de la  
Administración General de la Comunidad Autónoma.

En virtud del mandato contenido en la Disposi-  
ción Final 1.ª del Decreto 195/1990 de 24 de Julio,

## XEDATU DUT:

1. *atala.*— Agindu honen bidez, beste Administrazio Publiko batzuetakoetatikakoak izaki 1989.eko uztailaren 29an Euskal Autonomi Elkarte Administrazio Nagusiaren eta horren Erakunde Autonomoen zerbitzupean, Autonomi Elkarteetan zerbitzu-egoera edo antzekoa betez, zeuden funtzionariak baita egun horrez geroztik, lekualdaketan ondorioz, zerbitzuak bete dituzten edo bete ditzaten funtzionariak ere Euskal Autonomi Elkarte Administrazioaren Kidegoetan integrazeko prozedura arautzen da; osasun-arloko langileak, irakasleak eta ikerketa munduan ari direnak ez direla multzo horretan sartuko.

2. *atala.*— 1.— Aurreko atalean aipatzen diren funtzionariak, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen Gehigarritzko Xedapenetatik lehenengoan oharmandako Kidegoetan integrazeko eskabidea egin beharko dute, Agindu honen eraskin lez azaltzen den araupetutako eredu bidez, eta uztailaren 24eko 195/1990 Dekretuan ezarritako erizpideek diotena betez.

Zein Kidegotan integratu nahi duten adierazi ondoren, orain arte izan duten Kidegoari edo Eskalari buruzko aitortpena egingo dute, zein urtetan sartu ziren karrerako funtzionari lez, sartzeko eskatutako titulazioaren edo, beharko balitz, berebiziko titulazioen maila, lekualdaketa eguna eta horrek eragina izan zuenean zein sailkapen taldetan adskribatuta zegoen eta gaurregun zeinolako administrazio egoeran dagoen adieraziz.

Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoan, Erdi-mailako Teknikarien Kidegoan eta Teknikari Laguntzaileen Kidegoan integrazeko eskabidea eginez gero, dituzten titulu akademikoak aurkeztu beharko dituzte.

2.— Lehendakaritza, Zuzentza eta Autonomi Garapenerako Sailburuari bidaliko zaio eskabide hori, eta 20 eguneko epearen barruan aurkeztuko da, Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

3.— Halako edo holako Kidego edo Eskalako karrerako funtzionari egoeran dagoela egiaztatzen duen tituluaren fotokopia aurkeztuko da eskabidearekin batera, eta atal honetako 1. idazatik azken parrafoan aipatutakoari dagokionean, interesatuak duen titulu akademikoaren fotokopia.

4.— Eurak atxikita dauden Saileko Zerbitzu Zuzendaritzan edo Langilego Kudeaketarako Zuzendaritzan aurkeztuko da eskabidea edo, Administrazio Prozeduraren Legeko 66. atalean ezarritakoaren arabera, ziurtatutako postaz bidaliko da, edo aipatutako lege manu horretan oharmandako gainerako bidez baliatuz.

3. *atala.*— Dagokion Zerbitzu Zuzendaritzak edo Langilego Kudeaketarako Zuzendaritzak, interesatuen espedienteaz aztertutako ondoren, horrek emandako datuen egiaztatzea ziurtatuko du eta, beharko balitz, bidezkotzat jotako oharrak agertuko ditu, eta Lehendakaritza, Zuzentza eta Autonomi Garapenerako Saileko Funtzio Publikorako Zuzendaritzara bidaliko ditu agiriak, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasi eta hamar eguneko epearen barruan.

4. *atala.*— Funtzio Publikorako Zuzendaritzak,

## DISPONGO:

*Artículo 1.*— Se regula por la presente Orden el procedimiento de integración en los Cuerpos de la Administración de la Comunidad Autónoma Vasca de los funcionarios que procedentes de otras Administraciones Públicas estaban al servicio de la Administración General de la Comunidad Autónoma y sus Organismos Autónomos en fecha 29 de Julio de 1989 en la situación de servicios en Comunidades Autónomas o asimilada, y también de los funcionarios que pasen o hayan pasado, a prestar servicios con posterioridad a esa fecha, en virtud de transferencias, a excepción del personal sanitario, docente e investigador.

*Artículo 2.*— 1.— Los funcionarios a los que se refiere el artículo precedente, habrán de formalizar solicitud de integración en los Cuerpos previstos en la Disposición Adicional 1.ª de la Ley 6/1989, de 6 de Julio, de la Función Pública Vasca, de conformidad con los criterios establecidos en el Decreto 195/1990, de 24 de Julio, mediante modelo normalizado que figura como anexo a esta Orden.

Previo el señalamiento del Cuerpo en que soliciten se produzca la integración, completarán una declaración relativa a su Cuerpo o Escala de pertenencia y año de ingreso como funcionario de carrera en el mismo, nivel de titulación o, en su caso, titulaciones específicas exigidas para el ingreso, fecha de transferencia y grupo de clasificación al que estuvieren adscritos en el momento en que aquella tuvo efectividad así como de su situación administrativa actual.

Caso de que la solicitud de integración lo sea en los Cuerpos Superior Facultativo, de Técnicos de Grado Medio y de Ayudantes Técnicos, deberán consignar asimismo la titulación o titulaciones académicas que posean.

2.— La citada solicitud se dirigirá al Consejero de Presidencia, Justicia y Desarrollo Autónomico y se presentará en el plazo de 20 días naturales, contados a partir del siguiente a la publicación de la presente Orden en el Boletín Oficial del País Vasco.

3.— A la solicitud se acompañará fotocopia del título que acredita su condición de funcionario de carrera del correspondiente Cuerpo o Escala así como, cuando del supuesto del último párrafo del apartado 1.º de este artículo se trate, de la titulación académica que posea el interesado.

4.— La solicitud deberá presentarse en la Dirección de Servicios o Dirección de Gestión de Personal del Departamento al que se encuentran adscritos o remitirse por correo certificado conforme a lo establecido en el Art. 66 de la Ley de Procedimiento Administrativo, o por cualquier otra de las restantes modalidades previstas en el referido precepto legal.

*Artículo 3.*— La Dirección de Servicios o Dirección de Gestión de Personal correspondiente, previo examen del expediente personal del interesado, certificará la exactitud de los datos consignados por aquel y, en su caso, formulará las observaciones que estime pertinentes, remitiendo la documentación a la Dirección de Función Pública del Departamento de Presidencia, Justicia y Desarrollo Autónomico en el plazo de diez días a partir del día siguiente a la fecha de terminación del de presentación de solicitudes.

*Artículo 4.*— La Dirección de Función Pública po-

horrela jardutea on baderitzo, aitorpenean jasotako edozein alderdiri buruzko egiaztapena eska dezake.

Aipatutako Zuzendaritzak, eskuratu dituen agiriak ikusi eta legaltasun txostena eman ondoren, integrazioari buruzko proposamena heleraziko dio Lehendakaritza, Zuzentza eta Autonomi Garapenerako Sailburuari.

5. atala.— Lekualdaketa bidez beste Administrazio Publiko batzuetatik etorritako funtzionariak, Euskal Autonomi Elkarteke Administrazio Nagusiko karrerako funtzionari izendatuko dira eta Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legearen Gehigarritzko Xedapenetatik Lehenengoan oharmandako Kidegoetan integratuko dira, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadin Lehendakaritza, Zuzentza eta Autonomi Garapenerako Sailburu Jn. T. Gorenaren erabakiz.

Oso-osoan integratu ondoren, Lehendakaritza, Zuzentza eta Autonomi Garapenerako Saileko Funtzio Publikorako Zuzendaritzak, integrazio horren datuak sartuko ditu interesatuen espediente pertsonaletan.

#### GEHIGARRIZKO XEDAPENA

Eskabideak aurkezteko epea igaro eta formalizaketa hori gauzatu ez duten funtzionariak egonarren, integratuak izango dira horiek ere, Agindu honetako 5. atalean xedatutakoarekin bat eginez.

#### AZKEN XEDAPENA

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik hartuko du indarra Agindu honek.

Vitoria-Gasteiz, 1990.eko azaroak 23.

Lehendakaritza, Zuzentza  
eta Autonomi Garapenerako Sailburua,  
JUAN RAMON GUEVARA SALETA.

drá, cuando a su juicio así lo estime preciso, requerir la acreditación de cualquier extremo contenido en la declaración.

La Dirección citada, y a la vista de la documentación remitida, una vez emitido informe de legalidad, elevará al Consejero de Presidencia, Justicia y Desarrollo Autonómico la propuesta de Resolución de integración.

*Artículo 5.*— Los funcionarios procedentes de otras Administraciones Públicas en virtud de transferencias serán nombrados funcionarios de carrera de la Administración General de la Comunidad Autónoma y se integrarán en los Cuerpos previstos en la Disposición Adicional 1.ª de la Ley de la Función Pública Vasca, mediante Resolución del Excmo. Sr. Consejero de Presidencia, Justicia y Desarrollo Autonómico, que se publicará en el Boletín Oficial del País Vasco.

Una vez producida la integración efectiva, por la Dirección de Función Pública del Departamento de Presidencia, Justicia y Desarrollo Autonómico se procederá a realizar la correspondiente anotación de los datos de la misma en los expedientes personales de los interesados.

#### DISPOSICION ADICIONAL

Los funcionarios que dejaren transcurrir el plazo para la presentación de solicitudes, sin haberla formalizado, serán integrados, en cualquier caso, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 5.º de esta Orden.

#### DISPOSICION FINAL

Esta Orden entrará en vigor el día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Vitoria-Gasteiz, a 23 de noviembre de 1990.

El Consejero de Presidencia, Justicia  
y Desarrollo Autonómico,  
JUAN RAMON GUEVARA SALETA.

LEHENDAKARITZA, ZUZENTZA ETA AUTONOMI GARAPENERAKO SAILA  
DEPARTAMENTO DE PRESIDENCIA, JUSTICIA Y DESARROLLO AUTONOMICO

Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legeko 36.2 atalak eta gehigarritzko xedapenetatik bigarrenak eta horiek garatzen dituen uztailaren 24eko 195/1990 Dekretuak diotena betetzeko aurkezten da eskabide hau.

La presente solicitud se formula en orden al cumplimiento de lo dispuesto en el Articulo 36.2 y Disposición Adicional 2ª. de la Ley 6/1989, de 6 de Julio, de la Función Pública Vasca y Decreto 195/1990, de 24 de Julio, que las desarrolla.

1. NORBERAREN ZEHAZTASUNAK / DATOS PERSONALES

- 1. LEHENENGO ABIZENA / PRIMER APELLIDO:.....
- 2. BIGARREN ABIZENA / SEGUNDO APELLIDO:.....
- 3. IZENA / NOMBRE:.....
- 4. N.A.N. / D.N.I.:.....
- 5. HELBIDEA / DIRECCION:.....
- 6. HERRIA / POBLACION:.....
- 7. LURRALDEA / PROVINCIA:.....

2. ADMINISTRAZIO ZEHAZTASUNAK / DATOS ADMINISTRATIVOS

- 1. DIHARDUENEGO KIDEGO EDO ESKALA / CUERPO O ESCALA DE PERTENENCIA:.....
- 2. SARTU ZEN URTEA / AÑO DE INGRESO:..... 3. N.R.P./N.E.Z.: | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | |
- 4. TITULAZIO MAILA EDO, HALA BADA, SARTZEKO ESKATU ZITZAIZKION BERARIZKO TITULAZIOAK / NIVEL DE TITULACION O, EN SU CASO, TITULACIONES ESPECIFICAS EXIGIDAS PARA EL INGRESO (a):.....
- 5. TRANSFERENTZI EGUNA / FECHA DE TRANSFERENCIA:.....
- 6. SAILKAPEN TALDEA TRANSFERENTZI EGUNEAN / GRUPO DE CLASIFICACION EN EL MOMENTO DE LA TRANSFERENCIA:  
A | | | B | | |  
C | | | D | | |  
E | | |
- 7. GAURREGUNGO ADMINISTRAZIO EGOERA / SITUACION ADMINISTRATIVA ACTUAL (b):.....
- 8. DITUEN TITULAZIO AKADEMIKOA/K / TITULO/S ACADEMICOS/S QUE POSEE (c):  
.....  
.....

3. SARRERA ESKABIDEA / SOLICITUD DE INTEGRACION

Kidego honetan sartzea eskatzen dut / Solicito se proceda a la integración en el Cuerpo:

- | | | GOI MAILAKO ADMINISTRAZIO KIDEGOAN / CUERPO SUPERIOR DE ADMINISTRACION.
- | | | GOI MAILAKO KIDEGO FAKULTATIBOAN / CUERPO SUPERIOR FACULTATIVO
- | | | ADMINISTRAZIO KUDEAKETARAKO KIDEGOAN / CUERPO DE GESTION ADMINISTRATIVA

- ERDI MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOAN / CUERPO DE TECNICOS DE GRADO MEDIO
- ADMINISTRAZIO KIDEGOAN / CUERPO ADMINISTRATIVO
- LAGUNTZAILE TEKNIKOEN KIDEGOAN / CUERPO DE AYUDANTES TECNICOS
- ADMINISTRAZIO LAGUNTZAILEEN KIDEGOAN / CUERPO AUXILIAR ADMINISTRATIVO
- MENPEKOEN KIDEGOAN / CUERPO SUBALTERNO

Titulazio akademikoaren eta karrerako funtzionaria dela egiaztatzen duen tituluaren fotokopia egiaztatuak erasten dira.

Se aporta fotocopia compulsada del título académico así como del título que acredita la condición de funcionario de carrera.

Oharrak/Observaciones:.....  
 .....

Zin dagit edo nire hitza ematen dut, eskabide honetan azaldutako zehaztasun guztiak egiazkoak direla./- Juro o prometo ser ciertos cuantos datos figuran en la presente solicitud.

....., 199..(e)ko.....k.....  
 .....a.....de.....de 199...

Izenpea / Firma.

- (a)- Doktore, Lizentziatu, Ingeniari edo Arkitekto titulua edo baliokidea / Título de Doctor, Licenciado, Ingeniero, Arquitecto o equivalente.  
 Teknika-Ingeniari, Unibertsitate-Diplomadun, Teknika-Arkitektu edo Lanbide Heziketako 3. mailako titulua edo baliokidea / Título de Ingeniero Técnico, Diplomado Universitario, Arquitecto Técnico, F.P. 3er grado o equivalente.  
 Batxilergo edo Lanbide Heziketako 2. mailako titulua edo baliokidea / Título de Bachiller, F.P. de 2º grado o equivalente.  
 Eskola Graduatua edo Lanbide Heziketako Lehenengo mailako titulua edo baliokidea / Título de Graduado Escolar, F.P. de 1er grado o equivalente.  
 Eskola ziurtagiria / Certificado de Escolaridad.
- (b)- Iharduneko zerbitzuan / Servicio activo.  
 Borondatezko lan-utzialdian / Excedencia voluntaria.  
 Zerbitzu Berezieta / Servicios especiales.  
 Derrigorrezko lan utzialdian / Excedencia Forzosa.  
 Egitekoak utziarazita / Suspensión.
- (c)- Bakar-bakarrik Goi Mailako Kidego Fakultatiboan, Erdi Mailako Teknikarien eta Laguntzaile Teknikoen Kidegoetan sartzea eskatzen bada. / Únicamente si solicita la integración en los Cuerpos Superior Facultativo, de Técnicos de Grado Medio y de Ayudantes Técnicos.

.....SAILEKO ZERBITZU /  
 LANGILEGOAREN KUDEAKETA ZUZENDARITZAREN TXOSTENA. INFORME DE LA DIRECCION DE SERVICIOS/ GESTION DE PERSONAL DEL DEPARTAMENTO DE .....

Interesatuaren espedientea ikusirik adierazitako zehaztasunak zuzenak direla egiaztatzen dut / ez dut egiaztatzen (ez doakiona zirriboratu)./ Analizado el expediente personal del interesado se certifica /no se certifica (táchese lo que no proceda) la exactitud de los datos aportados por el mismo.

Oharrak/Observaciones:.....  
 .....

....., 1.99..(e)ko.....k.....  
 .....a.....de.....de 1.99...

ZERBITZU/LANGILEGOAREN KUDEAKETA ZUZENDARIA.

EL DIRECTOR DE SERVICIOS/GESTION DE PERSONAL.

Izenpea / Firma.

-LEHENDAKARITZA, ZUZENTZA ETA AUTONOMI GARAPENERAKO SAILBURU JAUN TXIT GORENA.  
-EXMO. SR. CONSEJERO DE PRESIDENCIA, JUSTICIA Y DESARROLLO AUTONOMICO.

## Agintariak eta Langilegoa Autoridades y Personal

### Izendapenak, Egoerak eta Gorabeherak Nombramientos, Situaciones e Incidencias

#### HIRIGINTZA, ETXEBIZITZA ETA INGURUGIRO SAILA

3605

AGINDUA, 1990.eko azaroaren 9koa, Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailburuarena, zeinen bidez Sailak Kontratazio Mahaian izango dituen kideak izendatzen bait dira.

Maiatzaren 26ko 205/1987 Dekretuak, zeinen bidez sortu bait zen Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailaren eta Garraio eta Herrilan Sailaren Kontratazio Mahai amankomuna, Kontratazio Batzorde Nagusiaren Ordezko Mahai gisa, zera adierazten du 4. atalean -Mahai horren osakeraz ari delarik- kontratua kasuan-kasua zein Sailena den, Sail horren hiru ordezkarik eta idazkari batek izan behar dutela bertako kide, besteak beste.

Xedapen horretan adierazitakoa betetzeko, 1987ko uztailaren 2ko Aginduaren bidez izendatu ziren Mahai horretan Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiro Sail honek izango zituen ordezkariek.

Gaurregun ordezkarik horietako batzuk dagoeneko ez dituztelarik beren zerbitzuak Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailean burutzen, bokal berriak izendatu beharra gertatu da.

Guzti hori horrela, eta maiatzaren 26ko 205/1987 Dekretuaren 4. atalean eta Azken Xedapenetatik Lehenengoan xedatutakoarekin bat etorritz, honako hau

XEDATU DUT:

1. atala.- Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailaren dagozkion arloetan iharduteko, Kontratazio

#### DEPARTAMENTO DE URBANISMO, VIVIENDA Y MEDIO AMBIENTE

3605

ORDEN de 9 de noviembre de 1990, del Consejero de Urbanismo, Vivienda y Medio Ambiente, por la que se designan los miembros del Departamento en la Mesa de Contratación.

El Decreto 205/1987, de 26 de mayo, por el que se crea, como Mesa Delegada de la Comisión Central de Contratación, la Mesa de Contratación común para los Departamentos de Urbanismo, Vivienda y Medio Ambiente y de Transportes y Obras Públicas, establece en su artículo 4.º cual debe ser la composición de esta Mesa, debiendo estar integrada entre otros, por tres representantes y un secretario del Departamento a cuyas áreas de actuación se refiera en cada caso el contrato.

En cumplimiento de la citada disposición, mediante Orden de 2 de julio de 1987, fueron designados los representantes del Departamento de Urbanismo, Vivienda y Medio Ambiente en esta Mesa de Contratación.

El hecho de que en el momento presente parte de estos representantes hayan dejado de prestar servicios en el Departamento de Urbanismo, Vivienda y Medio Ambiente, hace necesario proceder a una nueva designación de vocales.

Por todo ello, y de conformidad con lo dispuesto en el artículo 4.º y Disposición Final Primera del Decreto 205/1987, de 26 de mayo,

DISPONGO:

Artículo 1.- Designar Vocales de la Mesa de Contratación, en las áreas de actuación que corresponden